

INFORMAZIOA

EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko IKASLEEI EUSKARAZ EGINDAKO IKASKETA OFIZIALEN ZIURTAGIRIAK EMATEKO ETA IKASLEOK EUSKARA MAILA TITULU ETA ZIURTAGIRIEN BIDEZ EGIAZTATZETIK SALBUESTEKO PROZEDURA EZAGUTZERA EMATEKO DENA.

Apirilaren 3ko 47/2002 Dekretuak ezarri zuen euskaraz egindako ikasketa ofizialei aitortuko zitzaiela Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko zenbait mailaren pareko balioa, ikasleek dekretuan bertan zehaztutako baldintza jakin batzuk betez gero (titulazioa 1393/2007 Errege Dekretuak arautua edo aurrekoa izan) eta estatu osoan balioa duen unibertsitate titulu ofizial bat izanez gero. Horrekin batera, dekretuak xedatu zuen pertsona horiek salbuetsita geratuko zirela beren euskara maila C1 eta C2 mailen pareko euskarako titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzea behar izatetik.

Dekretuak 6. artikuluan dio unibertsitateek eman behar dituztela ziurtagiriak 2. artikuluan aipatzen den salbuespena lortzeko.

Horregatik, eta dekretua betetze aldera,
ERREKTOREORDE honek honako hau ERABAKI DU:

Lehena.- Baldintzak

1. Ziurtagiria eskatu ahal izango dute 1393/2007 Errege Dekretuak araututako unibertsitate titulu ofizial bat, estatu osoan balioa duena, daukaten edo eskatua duten UPV/EHUko ikasleek.
2. Era berean, eskatu ahal izango dute ziurtagiria 1393/2007 Dekretuaren aurreko legeriak araututako eta 2008ko apirilaren 16az geroztik lortutako unibertsitate titulu ofiziala, estatu osoan balio duena, daukaten edo eskatua duten UPV/EHUko ikasleek.

Bigarrena. Eskaera

1. 47/2012 Dekretua aplikatzeko erabiliko diren euskarazko kredituen datuak jasota egongo dira ikasleak bere ikastegiko idazkaritzan eskatuko duen ziurtagiri akademiko pertsonalean, lanbiderako ahalmena ematen duten masterretakoak barne.
2. Lanbiderako ahalmenik ematen ez duten masterren eta doktorego tesien kasuan, Master eta Doktorego Eskolak jarriko ditu euskaraz egindako kredituen datuak ziurtagiri akademiko pertsonaletan.
3. Aurreko ataletan aipatu ez diren ikasleek Euskararen arloko Errektoreordetzara bidaliko dute eskaria, eta berak egingo die ziurtagiria.

Hirugarrena. Ziurtagirietan azalduko diren datuak

Ikasleen ziurtagiri akademiko pertsonalek atal espezifiko bat izango dute, honako informazio honekin:

APIRILAREN 3ko 47/2012 DEKRETUA (2012/04/16ko EHAA) APLIKATZEKO INFORMAZIOA

Euskaraz egindako irakasgaiak	Kredituak	Espezifikoak
..... Irakasgaiaren izena.....XX,XX.....BAI..... (1)
..... Irakasgaiaren izena.....XX,XX.....	
..... Irakasgaiaren izena.....XX,XX.....	
GUZTIRA.....		

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzeari eta euskara maila titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteari buruzko dekretua), dokumentu honen titularra salbuetsita dago euskara maila egiaztatetik Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 edo C2ren pareko titulu edo ziurtagirien bidez (kasuan dagokionaren arabera).

Kasu hauetan bakarrik: Euskararen Plan Zuzendariko irakasgaiak; diplomatura, lizentziatura eta ingeniartzetako Euskara Teknikoa; eta euskaraz defendatutako GRALa, KALa edo KAPa. Gainerako irakasgaietan zuri utzi behar da.

Laugarrena. Baliokidetzaren irizpideak

Euskaraz egindako kredituen eta C1en arteko baliokidetzaren ezartzeko irizpideak erabaki honen eranskinean daude.

ERANSKINA: EUSKARAZ EGINDAKO KREDITUEN ETA C1 EDO C2ren ARTEKO BALIOKIDETZA

EUSKARAZ EGINDAKO KREDITUEN ETA C1en edo C2ren ARTEKO BALIOKIDETZA EZARTZEKO IRIZPIDEAK



A) APIRILAREN 3ko 47/2012 DEKRETUAREN I. ERANSKINA (1393 EDren MENPEKO GRADUAK, MASTERRAK ETA DOKTOREGOAK)

Euskaraz egindako ikasketak	Baldintza gehigarria	Euskarako hizkuntza prestakuntza ko kreditu espezifikoak	Hauen baliokide diren mailak egiaztatetik salbuetsita	C1 mailaren kalkulua
48 ECTS	Euskaraz egindako Gradu Amaierako Lana edo Master Ofizialaren Amaierako Lana	12 ECTS	C 1	a
84 ECTS	(1)	12 ECTS	C 1	b
114 ECTS	(1)	6 ECTS	C 1	c
144 ECTS	(1)		C1	d
Doktore titulua (tesia euskaraz idaztea eta defendatzea)			C 2	
Euskal Ikasketetako Gradua edo Euskal Filologiako Gradua			C 2	
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua, euskara A hizkuntzat hartuta			C2	

1. oharra: ikasleak ECTS kredituak lor ditzake, bai graduko titulazio bakar batean, bai graduko titulazio bakar bati eta master ofizial bakar bati dagozkion kredituak batuta.

2. oharra: gradu amaierako edo master ofizialaren amaierako lana euskaraz egitea baldintza gehigarria ez den kasuetan, lan horri dagozkion kredituek balio bikoitza izango dute lehen zutabeko ECTS kredituen guztizkoa lortzeko zenbatzen direnean.

C1 mailaren kalkulua:

(1) Bigarren oharra kasu hauetan aplikatu behar da.



a = 12 kreditu (Euskararen Plan Zuzendariko bi irakasgaiak) + GRALa edo MALa euskaraz defendatzea + euskaraz egindako 48 kreditu beste irakasgai batzuetan.

b = a. Kasu honetan euskaraz egindako GRALa edo MALa izanez gero, nahikoa da euskaraz egindako 48 kreditu edukitzea, ez da beharrezkoa 84etara heltzea.

c = 6 kreditu (Euskararen Plan Zuzendariko irakasgai bat) + (beste irakasgai batzuetan euskaraz egindako 114 kreditu – 2 X euskaraz egindako GRAL edo MALaren kreditu kopurua).

d = euskaraz egindako 144 kreditu – 2 X euskaraz egindako GRAL edo MALaren kreditu kopurua.

C2 mailaren kalkulua:

I. eranskinetako kasuetan zuzenean aplikatuko da.

APIRILAREN 3ko 47/2012 DEKRETUKO II. ERANSKINA (185/1985 eta 778/1998 EDen MENPEKO eta 2008ko/04/16az GEROZTIK AMAITUTAKO DIPLOMATURAK, LIZENTZIATURAK, INGENIARITZAK ETA DOKTOREGO TESIAK)

Euskaraz egindako ikasketak	Baldintza gehigarria	Euskarako hizkuntza prestakuntzako kreditu espezifikoak	Hauen baliokide diren mailak egiaztatzen salbuetsita	C1 mailaren kalkulua
52 kreditu	Karrera Amaierako Lana edo Master Ofizialaren Amaierako Lana euskaraz	12 ECTS	C 1	e
84 kreditu	(1)	12 ECTS	C 1	f
114 kreditu	(1)	6 ECTS	C 1	g
144 kreditu	(1)		C1	h
Doktore titulua (tesia euskaraz idaztea eta defendatzea)			C 2	
Euskal Filologiako Lizentziatura.			C 2	
Itzulpengintza eta			C2	



Interpretazioko Lizentziatura, euskara A hizkuntzatzat hartuta				
---	--	--	--	--

1. oharra: behar diren kredituak enborreko, nahitaezko eta hautazko irakasgaietakoak izan daitezke, baina aukera askeko kredituak ezin dira kontatu.
2. oharra: behar diren ECTS kredituak 2.2 artikuluan jasotako titulazio bakar batekoak edo graduako titulazio bateko kredituen eta master ofizial bateko kredituen batura.
3. oharra: Karrera Amaierako Lana edo Master Ofizialaren Amaierako Lana baldintza gehigarria ez denean haren kredituek balio bikoitza izango dute lehen zutabeko ECTS kredituen guztizkoa lortzeko.

C1 mailaren kalkulua:

(1) Hirugarren oharra kasu hauetan aplikatu behar da.

e = Euskara Teknikoko 12 kreditu + euskaraz defendatutako Karrera Amaierako Proiektua (KAPa) edo Master Amaierako Lana (MALa) + beste irakasgai batzuetan (hautazkoetan IZAN EZIK) euskaraz egindako 52 kreditu.

f = e. Kasu honetan euskaraz egindako GRALa edo MALa kontatu behar izanez gero, nahikoa da 52 kreditu edukitzea, ez da beharrezkoa 84etara heltzea.

g = Euskara Teknikoko 6 kreditu + (beste irakasgai batzuetan —hautazkoetan IZAN EZIK— euskaraz egindako 114 kreditu – 2 X euskaraz egindako KAP edo MALaren kreditu kopurua).

h = Beste irakasgai batzuetan (hautazkoetan IZAN EZIK) euskaraz egindako 114 kreditu – 2 X euskaraz egindako KAP edo MALaren kreditu kopurua.

C2 mailaren kalkulua:

II. eranskineko kasuetan zuzenean aplikatuko da.

Leioan, 2013ko maiatzaren 10ean.

Euskararen arloko errektoreordea

Xabier Etxaniz-Erle

